

KRITIKA FLAMENKOA

Joseba Martin

Edozer egin dezake emakume honek



EGUNKARIA

Mayte Martin kantaria.

'Querencia'

Abeslaria: Mayte Martin. **Tokia:** Barakaldo antzokia. **Eguna:** Urtarrilaren 19a. **Jende kopurua:** 250 lagun.

Kontzertu honekin Barakaldo-ko Ostiral Flamenkoe V. Topaketak hasi ziren. Barakaldo musika honen erreferentzia bihurtu da Euskal Herrian. Bartzelonako kantaria *Querencia* hirugarren lana aurkeztera etorrria zen, Juan Ramon Caro gitarra jolearen laguntzarekin. Hori zuen helburua, baina Mayte ez zegoen eroso. Lauzpabost aldiz eskatu zuen aire egokitua kentzeko, «dardaratu gabe hobeto kantatzen delako» eta «nire kopeta-ilea oraindik mugitzen da» bezalakoak esan zituen ironiaz.

Ahalegin sakona egin zuen kantariak bere lana aurrera ateratzeko. Eta primeran lortu zuen. Aparteko ahotsa dauka Maytek eta bere indarra erakus-

teko *palo* zailei edo erdi ahaztuei ekiten die, arriskuaren erditik. Beltzez jantzita —alkandora, jaka, prakak— agertu zen kataluniarra, *Glosa a la Niña de los Peines* izeneko *petenera*-rekin aritzeko. Maytek lan fina egiten du bere ahotsarekin, urregin bat izango balitz bezala, notak luzatzen, plano ezberdinen bila, begiak itxita, eskuen keinu guztiak bere lekuan. Kantari honek badaki transmititzen eta hirugarren kanturako entzule guztiak bere alde zituen.

Juan Ramon Caro gitarra jolea ondoan

Juan Ramon Caro gitarra jole maitagarria da: beti Mayteren itzalean, bere akordeak edo punteoak noiz sartu begira, presarik gabe, bigarren lerroan beti bere espazioa agertzearen zain. Paco de Lucia da bere maisua eta zalantzarik gabe atzamar finak ditu.

Juanito Valderramaren *Vida-*

lita izan zen bigarren pieza, *Serenoke* —*malagueña*-k eta fandangoak— ondoren. Sortaldeko kantuak, *seguriya*-k (www.elpena.com), *cantiña*-k (*Sal de aquí*) eta *buleria*-k izan ziren gainontzeko proposamenak. Une batzuetan Maytek txalo sutuak jaso zituen kantuak amaitu bezain laster: leun hasten da, baina aurrera joan ahala bere arima jartzen du ahotsean eztarriaren ertzearaino heldu arte. Zenbait kantutan ere hitzak poesia hutsa dira, lau lerro baino behar ez duten horietakoak. Azkenik, ekitaldi indartsua izan zen: edozer egin dezake Bartzelonako emakume honek aurrerantzean. Eta erakusteko bis bakarra eman zuen: zortzi minutuko kantu bat osatu zuen... a capella!! Tona honetan jendearen erantzuna geldiezia izan zen. Agertokira itzuli ziren, baina jendea agur egitera baino ez. Ez zen kantu gehiago izan.

KRITIKA DANTZA

Jesus Mari Begoña

Eskertzeko moduko estreinaldia

'Gogh', 'Faunoren lo kuluxka' eta 'Seguriya'

Koreografiak: Eduardo Lao eta Victor Ullate. **Musika:** Navarrete, zuzenean Bilbao Philharmonia. **Zuzendaria:** Gorka Sierra. **Tokia:** Bilboko Arriaga Antzokia. **Eguna:** Urtarrilaren 18a.

Eskertzekoa da Victor Ullatek berriro ere Bilbo auke-ratzea, oraingo honetan Vincent Van Gogh-en gaineko koreografia estreinatze-ko.

Eduardo Laoren koreografiak margolari espresionistak artearekin duen sormenezko ikustaldia eta koloreekin duen borroka kreatiboa adierazi nahi izan zituen.

Horretarako, argiztatze minimoekin eta Van Gogh-en pinturaren berregitearekin, diapositiben ondoan jarrita, dantza modernoaren baliabideak erabili zituen pertsonaia gorabeheratsuaren harreman artistikoak ederki islatzeko.

Jose Carlos Blascok pinto-rearen dantza gogoz eta ondo egin zuen, Victor Jimenez, Pilar Nevado eta Rut Mirok ondo lagunduta. Hala ere, taldeak zenbait deskoordinazio egin zituen lanaren zati horretan. Bilbao Philharmoniak eta organu joleak, orokorrean, ondo jo zuten zuzenean Navarrete-ren musika eragingarria eta eragin askotakoa.

Ullate berarenak ziren hurrengo koreografiak. *Faunoren lo kuluxka* ederra, bere maisua zen Bejartirenganai-

no eta Diaghilev Nijinskiraino itzultzen gaituena, dantzaren modernotasunaren sustraieraraino. Debussy-ren musika iradokitzailea erabiliz, Ullateren bertsioak Adan eta Evaren maitasun fisikoaren ezagupenaz hitz egin zigun. Victor Ruizek eta Rut Mirok *Pas a deux* fina bezain erotikoa eskaini ziguten.

Seguriya koreografia, sendoagoa

Luzeagoa eta sendoagoa, nire ustez, *Seguriya* dantza izan zen. Flamenkoearen, dantza modernoaren eta klasikoaren fusioen ondorioa da. Baina dantza horren zelula erritmikoa aitzakia baino ez da dantzaren sorrera aztertze-ko.

Delgadoren musikan, perkusiozko instrumentuak eta kolpeak dira nagusi,

Seguriya-ren pausoak konbinaketaren bidez polierritmoetan bihurtzen direnak. Hasierakoan, nire ustez, astun izan arte, baina gero *tempo*-a aldatuz, eta zelula txikiak bitartez gaintutua, azken orgia erritmikoraino.

Dantzariak bakarka lehenik, eta taldeka ondoren azken eskena koralera arte bata bestearen atzetik joan ziren, balletaren ahalbide guztiak garatu arte, besoen mugimenduak nabarmenduz. Aipatu behar da taldearen diziiplina eta koordinazioa argi-ilunen artean garatu zela. Balioko amaiera ondo txalotu zuten Arriagara bildutako ikusleek.

KOREOGRAFIA

Victor Ruiz eta Rut Miro dantzariak Pas a deux fina bezain erotikoa eskaini ziguten

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

70 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)

Egun: 6.000
Astea (6 egun): 4.600
2 aste (12 egun): 4.200
Hilabetea (24 egun): 3.000

33 x 33 mm

Lete
itzulpenak
egokitzapenak

administrazioa • publizitatea
enpresak • filmak • liburuak
zuzenketak

Tel.: 943 515 346
Faxa: 943 521 380

Ikastolen Elkarteak
MONITORE ETA
ZUZENDARI
DEIALDIA

Ikastolen Elkartearen udan lan egiteko
monitoreak behar dira.

Eskatzen da:
☐ Euskara ondo jakitea eta ingeleza
eta frantsesa badaki hobeto.
☐ 18 urte izatea.
☐ Aisialdiko tituluren bat edukitzea.

Izenemate epea:
Urtarrilaren 30era arte

Ikastolen Elkartearen telefonoa:
944 354 340

33 x 33 mm
MODULO
(Iparralde)

Eguna: 84 l.
Astea (6 egun): 73 l.
2 aste (12 egun): 61 l.
Hilabetea (24 egun): 46 l.

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 3.000
Astea (6 egun): 2.300
2 aste (12 egun): 2.100
Hilabetea (24 egun): 1.500

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 2.200
Astea (6 egun): 1.900
2 aste (12 egun): 1.600
Hilabetea (24 egun): 1.200

33 x 33 mm

EL SALVADOR
ELKARTASUNA

ZUZENEAN

SANTA TECLA
UDALARI

Kutxa 3585.9 CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA 2000.3
2101 0103 48 01230 3035 0214 38 21400

Informazioa

Tlfn: 656 748 128
www.honek.org
honek@honek.org

Honek
BERRI
GINTZATUEKIN
NABARTEKO
ELKARTASUNERAKO
KIDEAK